

4 > NON DAGO



aisa

AURKIBIDEA**1. Sarrera**

- 1. Irakaslearentzako oharrak..... 2
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea..... 3
- 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak 4

2. Atazak

- A Ataza:** Nolako hiriak?..... 5
- B Ataza:** Juliana kalean 7
- C Ataza:** Barkatu, non dago...?..... 10

3. Eranskinak

- 1. Bideo-pasarteak 12

4. Material osagarriak

- C Ataza:** Barkatu, non dago...?
- 1. Barkatu, udaltzaingoa?..... 15

1. Sarrera

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Unitate honetan, ikasleek herriaren eta hiriaren oinarrizko egitura ezagutuko dute. Izan ere, elementu garrantzitsuenak ezagutzuz, bertan ibiltzeko gutxieneko funtzionamendu ezaugarrien berri izango dute.

A atazan, hainbat hiritako irudietatik abiatuta, munduko hiri eta herrien eredu berri izango dute. Une hau hartuko da Euskal herriko hirien itxura eta elementu nagusiez jabetzeko.


Julianak bizi den herriari buruzko azalpenak emango dizkio lagun bati **B atazan**. Eta ikasleek, herriko elementu garrantzitsuak eta hainbat zerbitzu ezagutzeaz gain, hauen ohiko kokapenen berri izango dute.

C atazan, ikasleek kalean lekuen kokapenari buruzko galderak nola egiten diren ikusi, azalpenak ulertu eta praktikatu dituzte. Izan ere, azken ataza honetan, leku jakin batetik euren etxeraino nola joan daitekeen azaldu beharko diete gainontzeko ikaskideei.

Material osagarrietan hiriko leku eta zerbitzuen inguruko hiztegia landuko da. Planoarekin aritzeko materiala ere topatuko duzu, ikasleek era honetako materialarekin praktikak egin ditzaten.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

OSAGARRIAK



3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Hiri zein herriko leku jakin batera joateko azalpenak ulertzea eta ematea.

LEXIKOA

- Anbulatorioa, antzokia, aparkalekua, arkupea, auzategia, auzo, azoka, azpian, aurrera, bidea, bigarren, egitura, eliza, erdian, errepidea, ertzaintza, eskuina, estadioa, etxea, etxe-orratza, ezkerria, frontoia, funikularra, futbol-estadioa, ganean, geltokia, golf-zelaia, haurtzaindegia, herria, hiria, hirugarren, hondartza, ibaia, ibilbidea, ikastola, kaia, kanpina, kartazala, katedrala, kiroldegia, lehenengo, lekua, liburutegia, malekoa, meskita, metroa, museo, ondoan, parkea, parrokia, pasealekua, planoa, plaza, postetxea, taberna, turismo-bulegoa, udaletxea, udaltzaingoa, zubia...

MINTZAGAIAK

- Herria eta hiria (A)
- Hiriko zerbitzuak (B)
- Leku interesgarriak (C)
- Norberaren auzoa (C)

ELKARRERAGINA

- Zenbait lekuzko posposizio praktikatzea (B)
- Norabide-aginduak elkarri ematea (C)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Herriaren egitura ezagutzea (A)
- Herriko edo hiriko planoa ulertzea (A)
- Lekuak non dauden galdetzea (B)
- Leketara joateko ibilbidea ulertzea (C)
- Herriko zein hiriko leku interesgarriak non dauden jakitea (C)
- Leku batera nola iritsi azaltzea (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Hiriaren egiturari buruzko hiztegia (A)
- Lekuzko posposizioei buruzko galderak (B)
- Lekuzko posposizioak adierazteko egiturak (B)

EUSKAL KULTURA / GIZARTEA

- Euskal herriak eta hiriak (A)
- Hiriko zerbitzuak (B)
- Hiri eta herriko planoak (C)

2. Atazak

A ATAZA: NOLAKO HIRIAK?

105'

Helburu nagusia:

- Euskal Herriko hiriaren oinarritzko egituraketa ezagutzea.

Helburuak:

- Kultura desberdinetako herri eta hiriak ezagutzea.
- Ohiko eraikinen berri izatea.

Zertan den:

- Ataza honetan hiria izango da gai nagusia: itxura, egituraketa nagusia... Kanpoko zein Euskal Herriko herri eta hiriez arituko gara, desberdintasunak eta antzekotasunak ikusiz. Euskal Herriko hiriaren funtsezko elementuak aurkeztuko ditugu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ikasleek munduko hiriak ikusteko¹ (1. **bideo-pasartea**) aukera izango dute, Euskal Herriko bat (Gasteiz) barne. Galdetu ikasleei, itxura ikusita, nongoak izan daitezkeen, ea ezagutzen duten baten bat eta identifikatu duten Euskal Herrikoa? (10')

Ataza

- Ikasleak liburuko irudiak ikusi eta bere jatorriko herrian edo hirian daudenak aukeratuko ditu, laukitxoan irudien zenbakiak idatziz. (15')
- Ikasle bakoitzak bere zenbakien konbinazioa esango du eta beste ikaskideek herria edo hiria den esango dute. (15')

Atazaostea


- Ikasleekin herria eta hiria kontzeptuez hitz egingo dugu, eta hemengo hiriak, herri handiak eta txikiak ezagutzen dituzten galdetuko diegu, beren jatorrikoen oso desberdinak ote diren komentatuz. (10')

2

Ataza

- Euskal Herriko hiri baten irudiak² (**IZENBURUA KENDU BEHAR**) (2. **bideo-pasartea**) ikusi bitartean, azaltzen diren 4 lekuren izenak idatzi behar dituzte gutxienez. (5')

¹ Munduko hirien irudiak. HABEK egindako muntaia

² Gari. *Zaharra zara Bilbo*. Eguzki berriaren zaude. ELKAR  2242. EITB

Zuzenketa-orria

etxeak	plaza	ibaia	kaia	antzokia	zubia	arkupea
--------	-------	-------	------	----------	-------	---------

Feedbacka

- Ikasleek banaka esango dute zein leku identifikatu dituzten. Zuk arbelean idatziko dituzu eta denon artean osatuz joango zarete. Gerta daiteke ikasleek leku guztien euskarazko izena nola den ez jakitea; orduan, irudiak geldituz joan zaitezke azaltzen diren lekuen izenak. (5')

Atazaostea

- Galdetu ikasleei ea leku lasaia, zaratatsua, handia, txikia iruditzen zaien, ea jende asko bizi ote den hor... Eta, azkenik, ea asmatu duten zein hiri den eta bertan azaltzen den lekuren bat ezagutzen duten. (10')

3

Atazaurrea

- Zuek zaudeten herriko, hiriko zein auzoko planoak klasera eramango duzue, ezagutzen dituzten lekuak planoan identifikatu dituzten. Plano horretako zenbait egitura aipatuko dizkiezue, esaterako, pasealekua, kalea, plaza, auzoa, ibilbidea... (planoaren arabera). Hitz horien esanahiaz jabe daitezene, adibideak jarri beharko dituzue. Galdetu ikasleei aipatu dituzun egiturei buruz, ea gogoratzen dituzten. (10')

Ataza: irudiak ikusi eta gero, hutsuneak bete

- Hiri baten hainbat zati ikusiko dituzte. Ikasleek **3. bideo-pasarte**³ ikusi ondoren, taula osatuko dute falta diren hutsuneak betez. (15')

Zuzenketa-orria

Hiria	BILBO
Funikularra	ARTXANDA
AUZATEGIA	Ulibarri
IBAIA	Ibaizabal
Herria	PORTUGALETE
Herria	BARAKALDO
Herria	SESTAO

Feedbacka

- Ikasleek taulan idatzitakoa irakurriko dute eta bideoaren laguntzarekin denon artean zuzenduko duzue. (10')

³ Kintanaren txokoa.  2379. Bertatik Bertara. EITB

Helburu nagusia:

- Herri edo hiri baten oinarrizko leku eta zerbitzuak ezagutzea eta beren kokapenei buruzko azalpenak ulertzea.

Helburuak:

- Herriaren zatiak ezagutzea.
- Elementu nagusiak identifikatzea.

Zertan den:

- Juliana bizi den herriko hainbat leku ezagutzeko aukera izango dute ikasleek. Bideo-pasartean Juliana eta bere lagunaren arteko elkarrizketan oinarrituta, lekuen inguruko kokapenez arituko dira.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea**

- Bi helbide izango dituzte idatzita liburuko kartazaletan. Galdetu ikasleei ea ezagutzen dituzten datu guztiak. Azaldu zein diren helbidea emateko datuak: kalea, atari zenbakia, pisua, atea (*eskuina, ezkerre*)... Galdetu horrela den beren herrietan? **(10')**
- Ikasleek beren liburuko koadroa beteko dute. Eska iezazkiezu datu horiek eta idatz itzazu arbelean ea errepikatzen diren. **(5')**

Ataza: informazioa entzun ondoren, galderei erantzun

- Ikasleek bideo-pasarteko egoera⁴ (**4. bideo-pasartea**) ikusiko dute: bi pertsona herri txiki batera iritsi dira eta galdezka ari dira hainbat lekuren inguruan. Ondoren, liburuan dituzten galderei erantzuten saiatuko dira. **(15')**

Zuzenketa-orria

A	Telefonoa Plazan/tabernan
B	Plaza Eskuinean
C	Frontoia Ezkerrean

Feedbacka

- Ikasleek lekuak eta haien kokapena adieraziko dituzte, zure galderei (*Non dago frontoia...?*) erantzunez. Bideo-pasartearen laguntzaz beharrezko zuzenketa eta azalpenak egingo ditugu. **(5')**

⁴ Herri txiki batean. 3. ikasgaia. *BAI HORIXE!*

2

Atazaurrea

- Zarauzko argazki bat dute ikasleek liburuan. Esaiezu hiria ez baina herri handia dela eta galdetu ea ezagutzen duten. Juliana hor bizi da eta bertan dauden leku batzuk ezagutuko dituztela azalduko diezu. (5')

Ataza: elkarrizketa entzun ahala, lekuak identifikatu

Amaia Juliana ikustera etorri da Zarautza. Juliana berarekin atera da kalera eta herria erakutsi dio.

- Ikasleek bi lagunen arteko elkarrizketa⁵ (5. bideo-pasarte) entzungo dute eta aipatzen diren lekuak identifikatuko dituzte (zenbakiak jarriz), liburuko argazkien laguntzaz. (10')

Feedbacka

- Ikasleak taldeka elkartuko dira eta osatutako ibilbideak alderatuko dituzte. Ondoren, Juliana zein lekutan izan den galdetuko diezu, ondoko egitura erabiliz: *Zer ikusi dute Julianak eta bere lagunak? Eta gero?* (10')

Zuzenketa-orria

1	Herria/Hondartza
2	Malekoia
3	Parrokia
4	Musika plaza
5	Foruen plaza
6	Anbulatorioa
7	Kiroldegia
8	Ikastola
9	Hurtzaindegia
10	Kanpina

Atazaostea

- Galdetu ikasleei zein leku gehiago diren garrantzitsuak herri edo hirietan. Ikasle bakoitzak interesgarritzat jotzen dituen leku horien irudi eskematikoak egingo ditu. Leku horien izenak euskaraz ezagutzen badituzte, azaltzeko eskatuko diezu; bestela, zuk zeuk lagunduko diezu, euskarazko izena emanez. (10')

Gramatika eta diskurtsoa

- Une hau egoki izan daiteke ikasleekin lekuzko posposizioak lantzeko. Entzute-gaian atera direnak arbelean idatzi eta praktikak egin ditzakezu liburuan dituzten argazkiekin. (5')

*Zer dago plaza erdian?
Zer dago udaletxe ondoan?
Zer dago plaza azpian?
Zer dago mendi gainean?*

...

- Alderantziko prozedura erabiliz, banan-banan galdetuko diezu orain ikasleei ikaskideren baten edota gelako zerbaiten kokapenaz. (5')

*ZUK: Non dago Mario?
IKASLEAK: Mario, Isabelen aurrean, ondoan...*

⁵ HABEK sortutako entzute-gaia

Helburu nagusia:

- Hiri barruko lekuetara joateko azalpenak eskatzea eta oinarritzkoak ematen ikastea.

Helburuak:

- Lekuak non dauden galdetzea.
- Kokapenen inguruan emandako azalpen sinpleak ulertzea.
- Lekueta iristeko oinarritzko azalpenak ematea.

Zertan den:

- Hiri edo herri batean lekuak topatzeko gutxieneko errekursoak ikusiko dituzte ikasleek bidean. Bakoitzak bere etxera edota oso ongi ezagutzen duen leku batera iristeko azalpenak emango ditu modu errazean.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ikasleak binaka jarriko dira eta norabide-aginduak emango dizkiote elkarri hitz horiek praktikatzeko. **(10')**
- Hirian leku edo kaleren bat aurkitzeko jendeari galdetzea izaten da ohikoena. Hori islatzen duen egoera⁶ (**6. bideo-pasarte**) ikusiko dute eta, planoko ibilbidea jarraituz, ematen diren azalpenak ulertzen saiatuko dira. Ondoren, liburuko galderak eta erantzunak lotuko dituzte. **(15')**

Zuzenketa-orria

Barkatu, Axular kalea non dago?	Txokoto auzoan
Baina, non dago Txokoto auzoa?	Txokotora joateko, zubia pasa behar duzue
Kaixo, egun on! Axular kalea?	Segi ibai ondotik, eta bigarren kalea ezkerretara
Eta, non dago kale hori?	Segi kale honetatik zuzen, pasa beste aldera... enparantza txiki bat dago

Ataza

- Ikasleei beren herriko plano bat banatuko diegu, non bizi diren planoan bertan marka dezaten. **(5')**
- Non bizi zaren azalduko diezu ikasleei: zure azalpenak (ezagutzen duten lekuren batetik abiatuta) entzungo dituzte eta horien arabera bizi zaren lekua zein den esan behar dute. **(10')**
- Binaka jarriko dira eta, elkarri galderak eginez, ikaskidea non bizi den asmatuko dute. Horretarako, honako egiturak erabiltzea proposatuko diezu. **(10')**

⁶ Durangotik Elizondora. *BAI HORIXE!*

- A** ikaslea: Non bizi zara?
B ikaslea: Zuzen jarraitu, gero ezkerretara, Askatasuna kalea pasa eta...
C ikaslea: Bergara kalean?
D ikaslea: Bai, 23an.

Feedbacka

- Ikasleei galdera hau egingo diezu: Non dago "....."en etxea? Ikasle horren azalpena entzun duenak erantzuna eman beharko du: "....." kalean. **(10')**

Atazaostea

- Ikasleak bizi diren inguruaz hitz egiteko har daiteke une hau. Taldeka jarrita, liburuan dituzten galderari erantzuten saiatuko dira. **(10')**

IRAK. LIB. 4.1.

IK. LIB. 4.3.

Toki batera iristeko instrukzioak
lantzen dira material osagarrietako
Barkatu, udaltzaingoa? atazan.

3. Eranskinak

1. BIDEO-PASARTEAK

A ATAZA: NOLAKO HIRIAK?

1. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 1' 28"

Munduko hirien irudiak

2. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 0' 48"

Zaharra zara Bilbo

Neoizko argiak erdi zintzilik
daude taberna gainean
urratu den, aurpegi den
pareta gorrian

Zubiak gora zutitzen ziren
Portmoutheko ontzientzat
lehen "euskalduna", gaur palazioa
eta biharko laino beltzak.

Eta begiratzen zaitut
zuloaren gainetik
zerbait esan nahi dizut
zuga galdu aurretik
Zaharra zara Bilbo

3. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 1' 21"

Kintanaren txokoa

Eta era berean hiria ere kontrolatzeko ondo datorkio.

Bai, Artxandara ekarri zaituztet. Hau da Artxandako funikularren ondoko pasealekua eta txoko hau aukeratu dut hemendik Bilbo osoa oso ondo ikusten delako, ba, ni jaio nintzen Ulibarriko auzategia eta gero, ba, hiri osoa azken urteotan izan duen aldaketa guztiekin eta. Hau txikitandik beti toki atsegina izan dut, ba, txikitandiko gogorapenak ekartzen zizkidalako. Ba, esango nizuke sasoi hartan maiz gurasoekin hona etortzen ginen eguna pasatzen. Gure auzotegitik hona, ba, haurrok maiz kale girotik ihes egiteko, ba, Artxandara etortzen ginen, ba, ordu erdiz edo han mendian gora, eta bueno, beti toki hau, ba, ez dakit, iruditzen zait oso atsegina dela. Bestalde, Bilboko ibaia Ibaizabal osoa ikusten da hemendik nola pasatzen den. Eta, ba, pixka bat aurrerago joanda pasealeku honetatik bertatik, ba, jada, itsasoratzea ikusten da, ba, Portugalete, Barakaldo, Sestao eta inguru guzti hori eta oso atsegina da.

Bai, bai, bai, benetan bista, ikusmira, zoragarria zegoen, eh?

Bai, eta haizetsua parajea ere bai.

B ATAZA: JULIANA KALEAN

4. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 1' 48"

Herri txiki batean. *BAI HORIXE!* 3. ikasgaia

MIKEL Aizu, non dago telefonoa?
EMAKUMEA Hor, taberna horretan edo... bestela plazan
MIKEL Eta plaza non dago?
EMAKUMEA Kale honetan, eskuinean.
MIKEL Eskerrik asko, agur!
EMAKUMEA Agur, bai.

MIKEL Eta orain zer?
HASIER Pilota partidu bat
MIKEL Ongi. Eta frontoia non dago?
HASIER Hara! Han dago aguazila
MIKEL Aizu! Frontoia non dago?
AGUAZILA Frontoia? Ezkerrean.
MIKEL Ongi. Eskerrik asko.

5. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 1' 49"

LAGUNA Oso herri polita da hau, Juliana
JULIANA Bai, herri turistikoa da eta gauza asko ditu. Begira hondartza zein handia den.
LAGUNA Egia da, eta malekoia ere oso ederra da.
JULIANA Hau errepide nagusia da eta kalearen bukaeran Zarauzko parrokia dago.
LAGUNA Eliza ondoko plaza hau zein da?
JULIANA A! Musika plaza. Kiosko handia dauka erdian.
LAGUNA Eta beste hau?
JULIANA Foruen plaza. Udaletxe aurrean dago eta azpian aparkalekua dauka.
LAGUNA Primeran! Autoa herriaren erdian aparkatu daiteke.
JULIANA Bai, noski.
LAGUNA Eta merkatua non dago?
JULIANA Udaletxearen ondoan.
LAGUNA Herri handia da, ezta?
JULIANA Bai, alde zaharra dauka eta lau auzo. Auzo hau Azken Portu da eta hemen anbulatorioa dago. Anbulatorioaren ondoan kiroldegia dago.
LAGUNA Eta auzo hau?
JULIANA Inurritza auzoa da. Hemen, parkearen aurrean, ikastola dago. Inurritza ondoan Itxasmendi auzoa dago. Oso etxe altuak ditu eta haurtzaindegia ere hor dago.
LAGUNA Puf! Aldapa gogorra, e?
JULIANA Bai, Bista Alegre auzoa da hau, mendian dago. Begira, dorrea dago hor goian.
LAGUNA Golf zelaia ere badago eta hemendik ikusten da.
JULIANA Bai, hondartza ondoan. Eta, han, bukaeran, Talai mendi gainean, kanpina dago.
LAGUNA Benetan, herri polita Zarautz.

C ATAZA: BARKATU, NON DAGO...?

6. BIDEO-PASARTEA

Durangotik Elizondora. *BAI HORIXE!* 17. ikasgaia
Iraupena: 1' 43"

1. zatia

EMAKUMEA Barkatu, Axular kalea non dago?
LANGILEA Axular kalea?... Txokoto auzoan
EMAKUMEA Bai... baina non dago Txokoto auzoa?
LANGILEA Hara... Txokotora joateko, zubia pasa behar duzue.

2. zatia

GIZONA Kaixo, egun on!
BESTEA Baita zuri ere.
GIZONA Axular kalea?
BESTEA Segi ibai ondotik, eta bigarren kalea ezkerretara.
GIZONA Eskerrik asko.

3. zatia

GIZONA Eta, non dago kale hori?
BESTEA Etorri. Segi kale honetatik zuzen.
EMAKUMEA Bai.
BESTEA Pasa beste aldera.
EMAKUMEA Bai.
BESTEA Eta beste aldean enparantza txiki bat dago.
EMAKUMEA Ederki!
GIZONA Agur eta eskerrik asko.
BESTEA Ondo joan.

7. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 1' 23"

JULIANA Barkatu, udaltzaingoa?
UDALTZAINA Hemendik, Florida parketik, oso urruti dago. Hobe duzu Ertzaintzaren polizia-etxera joatea.
JULIANA Eta non dago Ertzaintza?
UDALTZAINA Segi zuzen Florida pasealekutik Eusko Legebiltzarreraino. Hartu eskuinetara, Alaba Jenerala kaletik. Segi zuzen, gurutzatu Eduardo Dato kalea hurrengo kale-gurutzeraino, eta han galdetu.
JULIANA Eskerrik asko! Agur!
JULIANA Aizu, barkatu, non dago Ertzaintza?
HIRITARRA 1 Hemen bi kale dituzu: Foruen kalea eta Independentzia kalea. Hartu eskuinetara, Independentzia kaletik behera, eta segituan ezkerretara, Bakearen kaletik gora. Pasa Postas kalea eta zuzen Olagibel kaleraino, eta berriro galdetu.
JULIANA Eskerrik asko!
JULIANA Barkatu, Ertzaintza?
HIRITARRA 2 Hortxe bertan duzu Ospitale Nagusiaren parean.

4. Material osagarriak

C ATAZA: BARKATU, NON DAGO...?

1. BARKATU, UDALTZAINGOA?

30'

Helburua:

- Lekueta iristeko instrukzioak ulertzea.

Zertan den:

- Entzundako azalpenean oinarrituta, hiriko planoan udaltzaingoa aurkitu beharko dute ikasleek.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Zerbait galtzen dugunean, ohikoena udaltzaingora joatea izaten dela adieraziko dugu klasean. Gero, galdetu ikasleei ea beraiek bizi diren herrian badagoen horrelakorik. (5')

Ataza

Egoera hau aurkeztuko diegu: Julianak bere diru-zorria galdu du eta udaltzaingora joan behar du; horregatik galdetu du kalean eta pertsona bat ari zaio non dagoen azaltzen.

- Ikasleek, entzundako instrukzioei⁷ (7. bideo-pasarte) jarraituz, udaltzaingoa planoan kokatuko dute. (15')

Feedbacka

- Ikasleak taldeka jarriko dira eta planoak konparatuko dituzte. (10')

⁷ Barkatu, udaltzaingoa? HABEk moldatutako grabazioa


EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak: **Ainhoa Gaintza** (Planiker)
Belen Benitez (Planiker)
Errealizazio didaktikoa: **Felix Sainz** (HABEko teknikaria)


HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Planiker enpresari materialgintza-
-proiektu honetan parte hartzeagatik.


Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Durangotik Elizondora. *BAI HORIXE!*

Gari. *Zaharra zara Bilbo*. Eguzki berritan zaude. ELKAR  2242. EITB

Herri txiki batean. *BAI HORIXE!*

Kintanaren txokoa.  2379. *Bertatik Bertara*. EITB

Munduko hirien irudiak: N.Y., Tokio, Mexiko... eta Gasteiz.  764 eta 462 nahastuta. EITB